



## **EUSKARA IKASI EDO EUSKARAZ ALFABETATZEKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL ARAUDIA**

Markina-Xemeingo Udalak oso garrantzitsua irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik, aurrekontu partida bat ezarri du 2019/2020 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Markina-Xemeingo biztanleei diru-laguntzak emateko.

### **HARTZAILEAK.-**

Diru-laguntza honen onuradun izango dira Markina-Xemeinen erroldatuta egon eta aipatutako euskara ikastaroak HABEK homologatutako edozein euskaltegitan egin dituzten edo egiten ari direnak.

### **BETEBEHARRAK.-**

Markina-Xemeingo Udalak onartutako diru-laguntzak jasotzeko ezinbestean ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- 1.Markina-Xemeingo udalerrian erroldaturik egotea.
- 2.Markina-Xemeingo udalerriarekin inolako diru-zorrik ez edukitzea.

Euskalduntze 1. mailako ikasleek, ikasturteko aprobetxamendua eskasa izan badute edota baja izan badira, ezingo dute hurrengo bost ikasturteetan diru-laguntzarik jaso eta urte horretan jasotakoa itzuli beharko dute.

### **EMANGO DEN DIRU-LAGUNTZA.-**

Ikasle diren guztiek izango dute honelako diru-laguntzen onuradun izateko eskubidea, ondorengo baldintzak betez gero:

1. Ikastaro osoko (matrikula egin denetik) asistentzia % 80 edo altuagoa izatea.
2. Ikasturte edo ikastaroan baja ez izatea.



3. Aprobetxamendua islatzen duen egiaztagiria, dagokion ikasguko arduradunak sinatua.

Horrela, egindako mailaren arabera honako diru-laguntzak emango dira:

Urteko diru sarrerak	< 12.000€	12.000 – 25.000	>25.000
<b>Ikasmaita</b>			
1	%100	%100	%80
2	%80	%60	%40
3	%60	%40	%20
4	%40	%20	%10

Araudi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru-laguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharrianen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Markina-Xemeingo Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

#### DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO LEKUA.-

Eskariak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu daitezke.

#### Euskalduntze 1. mailako ikasleek:

Lehenengo mailako ikasleei udalak ordainduko die matrikularen zenbatekoa ikasturte hasieran, AEK eta Markina-Xemeingo udalaren arteko hitzarmen baten bidez. Ikasturtean bi kontrol egingo dira bata abendua-urtarrila inguruan eta bestea maiatza-ekaina bueltan.

Ikasle hauek matrikula egiterakoan errenta aitopenen kopia aurkeztu beharko dute eta urtean 25.000 € baino gehiagoko diru sarrerak dituztenek matrikularen % 20 bueltatu beharko diote udalari.



Abendua-urtarrila eta maiatza-ekaina bueltan egingo diren egiaztatze kontroletan ikasleek euskaltegiak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute ondoko zehaztasunak jasoaz:

- a) egingo duen ikasmaila
- b) ordutegia
- c) iraupena
- e) matrikula sariaren zenbatekoa
- f) ikasleak ikasgu horretan aurretik beste ikastarorik egin badu, berorren aprobetxamendua.
- g) ikasleak, gutxienez, % 80ko asistentzia izan duela egiaztatzen duen ziurtagiria; hala ere, asistentziaren portzentaje zehatza adieraziko da.
- h) beste erakunderen diru-laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edo jaso den kasuan honen ebazpenaren kopia non jaso den zenbatekoa zein den azaltzen duena.

**Euskalduntze 2, 3 eta 4. mailako eta alfabetatze mailetako ikasleek:**

- Diru-laguntza eskari normalizatua
- Eskatzailearen NAN fotokopia
- Errolda egiaztatzea
- 2019ko errenta aitortzea
- Dagokion ikastarorako beste inongo erakundeetatik diru-laguntzarik jaso ez izanaren aitortzea sinatua.
- Matrikula ordaindu izanaren egiaztatzea.
- Diru-sarrera egin nahi den bankuko libretaren lehen orrialdearen fotokopia.
- Ikasketak burutuko dituen euskaltegiak egindako egiaztatzea ondoko zehaztasunak jasoaz:
  - a) egingo duen ikasmaila
  - b) ordutegia
  - c) iraupena
  - e) matrikula sariaren zenbatekoa
  - f) emandako eskola orduak
  - g) ikasleak, gutxienez, % 80ko asistentzia izan duela egiaztatzen duen ziurtagiria; hala ere,



asistentziaren portzentaje zehatza adieraziko da, beronen arabera izango delako diru laguntzaren zenbatekoa.

h) beste erakunderen diru-laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edo jaso den kasuan honen ebazpenaren kopia non azalduko bait den jaso den zenbatekoa.

### ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA.-

#### Euskalduntze 1. mailako ikasleek:

Euskaltegiak berak bideratuko ditu eskaerak ikasturte hasieran. Horretarako beharrezko dokumentazioa aurkeztuz.

#### Euskalduntze 2, 3 eta 4. mailako eta alfabetatze mailetako ikasleek:

Diru laguntzak eskatzeko **epea irailaren 21etik urriaren 9ra** bitartean egongo da zabalik. Epe hori bukatu eta gehienez 60 eguneko epean diru laguntza eskaeren ebazpena kaleratuko da.

### EBAZPENA.-

Eskaera jaso eta erantsitako agiriak aztertu eta gero, interesdunei jakinaraziko zaie legokeen erabakia bizitokira helaraziko zaien idatzizko jakinarazpenaren bitartez, eta kontu korrontean egingo zaio diru-sarrera hirurogei egunen buruan.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun baliodunetako epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, bere eskaria ez dela kontuan hartuko eta, hala ebatziko da Herri Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusten dituen terminoen arabera eta, halaber, aintzat hartuta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikulua ezartzen duena.



### HABE-RI DIRU-LAGUNTZAK JAKINARAZTEA.-

Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak zehazten dituen mailak egiaztatuta izan eta HABEk dagokion Ebazpenaren bitartez arautzen dituen diru-laguntzak jaso ahal dituzten ikasleek jasotzen dituzten laguntzetan akatsik eta gain-finantzaketarik egon ez dadin Udalak idatziz jakinaraziko dizkio HABEri emandako diru-laguntzak.